



# HAURRESKOLARAKO ERAIKINAREN ESPEROAN

Bitartean behar horri erantzuna emateko Kalebeheran alokairuko modulu batean daude zazpi haur 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2010-01-19

VIII. URTEA 1.906. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Elena Calen erailketa gogor gaitzetsi dute gizarte eragileek eta Udalak

**TOLOSA** Labanaz oso larri zauritu zuten emakumea herenegun eta Donostia Ospitalean hil zen

**DEIALDIA** Emakumeen Mundu Martxako Plataformak deituta elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean 2-3



Bi elkarretaratze egin zituzten atzo Tolosako udaletxearen parean, 250 pertsona inguru bildu zen bertan. I. TERRADILLOS



Jose Mari Saez, Oscar Renedo eta Isitxo Larrañaga. I. TERRADILLOS

## 800 bat ume espero dituzte igandean izango den XXIII. Ero Etxe Krosean

**TOLOSA** Pasa den urteko ibilbide bera egingo dute; egunean bertan ere eman daiteke izena 4

**PATXI ZEBERIO** PILOTARIA

«Erritmo oso bizia jarri nuen hasieratik, aurkariak asko behartu nituen»

**ELDUAIN** Binakakoan seigarren txapela jantzi du; «lan handia eginda» Tejados Aoiz Txapelketako azken partida «disfrutatu» zuela dio 6

**IMH Ingeniaritza Eskola**  
Bardakako aziberrak

**Ate irekiak URTARRILAK 23** (11.00etatik)

MARTXOAK 6  
(11.00etatik)

APRILAK 24  
(11.00etatik)

MAYATZAK 29  
(11.00etatik)

UZTARILAK 1  
(11.00etatik)

IMH - Artea, zuzena, 1 - 30078 Elorriberri - Tfn: 943 74 41 33 imh@imh.es - www.imh.es



### Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:  
**Epergain**  
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.  
Eraikitzen du:  
**Aburuza**  
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

# Herritarrek eta erakundeek gogor gaitzetsi dute Elena Calen erailketa

**Emakumeen aurkako indarkeria** » Ustezko hiltzailea atxilotu dute; sumarioa sekretupean dago; Tolosaldeko urteko lehen emakume eraila da.

I. TERRADILLOS-E. EZEIZA

Herritarrek gogor gaitzetsi dute herenegun Tolosan izan zen Elena Cal emakumearen erailketa. Tolosako Udaleko sail ezberdinetako arduradunak goizean goiz bildu ziren gaia elkarlanean lantzeko. Horrelako gertaerak ematen direnean ohiko jarraibidea den bezala, aparteko eta presazko Osoko Bilkura deitu zuten atzo iluntzerako. Bertan Udalbatza osatzen duten alderdien artean Elena Calen erailketa salatzen idatzi instituzionala adostearekin batera, herritarrek deitu zituzten elkarretaratzera. Bando bidez luzatu ziren Udalak herritarrei deialdia etxetik. Bilgune Feministak, bere aldetik, toki eta garai berean deitu zituzten elkarretaratzea erailketa salatzen. Deialdiak erantzun handia izan zuten, eta herritar ugari bildu ziren udaletxearen atarian tolosarraren heriotza salatu eta haren sendiari elkartzasuna adierazteko. Bi elkarretaratzeetan 250 bat pertsona bildu ziren.

## Ustezko hiltzailea atxilotuta

Herenegun arratsaldean eman zen gertaera. Labanaz oso larri zauritu zuten emakume bat hil zen Donostia Ospitalera eramanez ondoren. Ertzaintzak jakinarazita, koaren arabera, 44 eta 49 urteko bi gizon atxilotu zituzten, erasoarekin zerikusirik duten ikertzeko. Bi gizon horietako bat hildako emakumearen bikotekidea zen.

Hain justu, bikotekideak deitu zion igandean arratsaldeko laurak aldera Ertzaintzari emakumea eraso zutela eta larri zaurituta zegoela esateko. Bikotea bizi zen lekurajoan zirenean emakumeak lepoan labanarekin egindako ebaki handia zuela eta oso larri zegoela ikusi zuten. Osasun larrialdi zerbitzuetako kideek bere egoera egonkortzea lortu zutenean Donostia

Ospitalera eramanez zuten, eta han hil zen ordu batzuen buruan.

Hildakoaren bikotekideak erantzunez agertu ziren *Portugues* ezizenez ezagutzen den gizon bat zela erasotzailea, eta hari buruzko xehetasunak eman ondoren, Tolosako Alde Zaharreko taberna batean ohiko jarraibidea den bezala, aparteko eta presazko Osoko Bilkura deitu zuten atzo iluntzerako. Bertan Udalbatza osatzen duten alderdien artean Elena Calen erailketa salatzen idatzi instituzionala adostearekin batera, herritarrek deitu zituzten elkarretaratzera. Bando bidez luzatu ziren Udalak herritarrei deialdia etxetik. Bilgune Feministak, bere aldetik, toki eta garai berean deitu zituzten elkarretaratzea erailketa salatzen. Deialdiak erantzun handia izan zuten, eta herritar ugari bildu ziren udaletxearen atarian tolosarraren heriotza salatu eta haren sendiari elkartzasuna adierazteko. Bi elkarretaratzeetan 250 bat pertsona bildu ziren.

Elena Calena 2010a hasi besterik egin ez dugun honetan eskualdean jazotzen den lehen erailketa kasua da. Iaz, beste antzeko gertaera bat eman zen, orduan, Izaskun Jimenez tolosarra izan zen biktima. Aipatzeko da ere, atzo bertan, Barakaldon (Bizkaia), emakumeen aurkako beste indarkeria eraso bat eman zela.

## Tolosako Udalaren gaitzespina

Elena Calen indarkeriazko heriotzaren gainera adierazpena adostu zuten Udalbatza osatzen duten alderdi guztien artean. Adierazpen horrekin, Udalak herenegun jazo zen indarkeriazko heriotzari bere gaitzespenez irmoena agertzen dio; «berriro ere emakumeen kontrako indarkeriazko ekintza tamalgarri baten aurrean gaude, alboratu ezin dugun marjinalitateko testuinguru batean», dio idatziaz.

Atzo, Osoko Bilkuran alkatearekin batera, Onintza Lasak, Berdintasun saileko zinegotziak, hartu zuen hitza. «Era honetako gertakariak erantzun bat eskatzen dute, eta kalera ateratzea beharrezkoa



Aho batez onartu zuten atzo Udal ordezkariak Elena Calen erailketa salatzen zuen mozioa. I. TERRADILLOS



Tolosa herriko tren geltokiaren ondoan dagoen txabola batean bizi zen biktima; bertan eraso zuten. I. TERRADILLOS

da. Hala ere, bihar eta etzi ere, gure konpromisoa sendoa izaten jarraitu behar du, gisa honetako ekintzak ekidin ahal izateko» agertu zuen. Bestalde, une honetan zuhurtziaz jokatu behar dela ohar-tarazi zuten, eta gaineratu, atzokoa kalera ateratzeko eguna zela, eta gertutasuna adierazteko. Hitz hauekin amaitu zuen: «ez dago asko esateko, dena esanda dago, emakume bat hil dute».

Halaber, Udalak onarturiko mozioak gaineratzen duenez, «tragedia honek, hain zuzen ere, jartzan gaitu berriro erakundeak

eta herritarrek indarkeria matxistaren gaitzarekin dugun erantzukizunaren aurrean». Bestalde, Tolosan gertatuak beste errealtate bat ere azaleratzen duela uste dute: «Ezagutu behar dugun eta gainditzeko lana egitea eskatzen duen beste errealtate hau: pertsona askok bizi duen bazterketa eta marjinalitate egoera, non emakumea izateak alde kalteuena izatea dakarren».

Azkenik, Udalak bere elkartzasuna adierazi die Elena Calen familiakoei eta adiskideei, eta laguntzeko «prestutasun osoa» agertu. Ho-

rrez gain, gertatutakoa lehenbailehen argitzeko exijitu zuten atzoko ezohiko bilkuran.

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak «emakumeen aurkako beste ekintza tamalgarritzat» definitu du herenegun gertaturikoa. «Kasu honetan, gainera bazterketa testuinguru batean gertatu da. Guztiontzat ezaguna zen biktima, bizitzan asko sufritutako pertsona zen Elena Cal, zorte txarra izan duena, eta bukaera ere tristea», esan zuen Bildarratzek.

Erakunde publiko nahiz pribatu ugari erakutsi zuten atzo egunean zehar hilketaren inguruko gaitzespina. Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak, Rafaela Romerok, «bere samina» azalduz, emakumeen aurkako indarkeria kasuak pertsonenganako terrorismo ekintza bezala definitu zituen. Hala, garbi utzi zuen kalera irten behar dela, «erasoak salatu eta erasotzaileei aurre eginez». Herenegun Tolosan izan zen erailketa salatzen idatzi instituzionala adostearekin batera, herritarrek deitu zituzten elkarretaratzera. Bando bidez luzatu ziren Udalak herritarrei deialdia etxetik. Bilgune Feministak, bere aldetik, toki eta garai berean deitu zituzten elkarretaratzea erailketa salatzen. Deialdiak erantzun handia izan zuten, eta herritar ugari bildu ziren udaletxearen atarian tolosarraren heriotza salatu eta haren sendiari elkartzasuna adierazteko. Bi elkarretaratzeetan 250 bat pertsona bildu ziren.

Bestalde, Emakunde-Emaku-

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Argazkiak.** Eguberrietan kartulina beltz bat galdu nuen Tolosako Alde Zaharrean argazki eta kopia batzuekin, azalean Karlis dendaren izenarekin. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 653 72 92 46 telefono zenbakira.

@ **Irudietan.** Urtea zuriz jantzita hasi dute eskualdeko herri gehienek. Elurrik paisaia zoragarriak utzi ditu 2010 urteko lehenabiziko egun hauetan. Bidaltzazu [tolosa@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosa@tolosaldeko-hitza.info) helbidera egun hauetan, eskualdeko txoko ezberdinetan zuzkeratutako argazkiak. Hauekin ondoren, bilduma bat osatuko da eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean ikusgai dagozala.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

» ERREAKZIOAK

«Emakumeen aurkako beste ekintza tamalgarri bat da hau; kasu honetan, gainera, bazterketa testuinguru batean»

JOKIN BILDARRATZ  
 Tolosako alkatea

«Eraiketa muturreko ekintza da; emakume gutxiesten duten eraso ugari daude gizartean»

GIZONEN ELKARGUNEA

mearen Euskal erakundeak ere bere gaitzespena azaldu zuen, eta gogoratu zuen «emakumeen kontrako indarkeria dela gaur egun emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunaren adierazgarri latz eta gogorrena». Honekin batera, Emakundeek gizarteari dei egiten dio honelako indarkeria kasuen aurrean sentitzen duten dauden genero arauak aldatu ez ditzaten». Modu horretan azpimarratzen du Emakundeek gizarte guztiak duela erantzukizuna emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokan.

«Bizi dugun sistema patriarkalaren ondorio»

Tolosaldeko Bilgune Feministak elkartasuna azaldu nahi die Elena Calen familiari eta lagunei. Bestalde, argi dute «bizi dugun sistema patriarkal eta kapitalistaren ondorio» direla herenegungo bezalako eraikitak; «milaka emakumek Euskal Herrian bizi duten indefentsio egoeraren ondorio larriena dira, gure herrietan ditugun erakundeek bideratutako legeek, berdintasun batzorde eta neurriek ematen diguten erantzuna, zapalkuntza, diskriminazioa, eskubide berdintasun eza, indefentsioa eta heriotza».

Euren ustez, «sistema honek bideratzen baitu gizon eta emakumeen arteko harremanak ez horizontalak izatea, botere harremanetan oinarrituriko jendartea izatea, eta harreman aske eta parekoak ez izatea». Hala, momentuko neurriak baino, eraginkorrak behar direla diote, «prebentziozkoak, integralak, jendartean erasotzaile gehiago ez dela egongo bermatuko dutenak». Izan ere, era integralean erantzuten ez zaion bitartean, emakumeon aurkako erasoek bere horretan jarraituko dutela diote, «bai etxean, bai kalean, eskolan, lanean, gaztetxean, parrandan, espetxetan; jendarteko eremu guztietan».

Matxismoaren aurrean tinko altxa eta emakumeen eskubideak aldarrikatuko dituztela gaineratzen dute, «emakume izateagatik horrelako jarrerarik onartuko ez dugula argi eta ozen esanez, emaku-

«Bizi dugun sistema honek bideratzen ditu horrelakoak, eta neurri eraginkorrak behar dira hori aldatzeko»

BILGUNE FEMINISTA

«Bihar eta etzi ere gure konpromisoak sendoa izan behar du, horrelako ekintzak ekiditeko»

TOLOSAKO BERTINTASUN SAILA

me aske eta autonomo gisa formatzu, gure buruarengan dugun ziurtasuna handituz eta gaitasunetan sinistuz». Halaber, Bilgune Feministarentzat beharrezkoa da arazo sozial honi aurre egiteko emakumeak antolatzea, euren artean babestea, taldean eztabaidatzea eta espazio komunak erakitzea. «Erabil ditzagun gure gaitasun guztiak emakume bat gehiagok indarkeriarik jasan beharrik izan ez dezan; berak bizi izan duenak guztioi eragiten baitigu».

Bestalde, Emakumeen Mundu Martxako Plataformak deituta, gaur 19:30ean, Triangulo plazan elkarretaratzera egingo dute Elena Calen heriotza salatzen. Bilgune Feministak bat egiten du deialdi horrekin.

Gizonen elkargunea

Gizonez osaturik dagoen eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea helburu duen taldeak ere gogor salatu du hilketa. Batekik, gaitzespen «bortitzena» adierazi dute, «gizalegean oinarrituta guztiak berdina garelako, eta giza eskubideak aintzat hartuta inork ez baitu inor erailtzeko eskubiderik». Emakumeei, erasoen aurrean, ez daitezela bakarrik egon esan nahi die Gizonen Elkarguneak: «erasoa edozein delarik ere, bortxaketa, tratu txarrak, irainak... erakundeen eta inguruko enbabezabilatu dezatela». Gizonei, berriz, hausnarketarako «baliagarria» izan beharko luketela horrelakoek esaten diete; «Oso garrantzitsua da berdintasuna aldarrikatu eta zabaltzea nahiz gure seme-alabak berdintasunean hezteko, horrek egiten baikaitu gizonago», diote. Dena den, garbi dute, berdintasuna ez dela bat-batean etortzen, «pixkanaka landu behar da, egunero ikasten baikoaz hausnarketaren bidez».

Bestalde, elkartearentzat «oso kontuan hartzeko» da emakumeen eraikitak «muturreko ekintzak» direla; «horren azpian, gure gizartean, kultura, lan munduan... ondo errotutako beste eraso batzuk daude emakumea gutxiesten dutenak, eta gizarteak hori ezin du ahaztu». Azkenik, euren elkartasuna eta samina adierazi nahi izan diete senideei eta adiskideei. Hala nola, herritarrak antolatzen diren gaitzespen ekitaldietan parte hartzea deitu dituzte.

G Gutunak

Ezetzko baten arrazoiak

Abenduaren 29arekin onartu ziren Tolosako udalaren 2010ko aurrekontuak. EB-Aralar udal taldeak ez zituen babestu. Murrizketa-ko aurrekontuak izan dira, udalak izango dituen diru-sarrerak asko gutxituko direlako. Hasteke ez dugu geure egiten aurrekontuen memorian egiten den irakurketa. Krisia, hori da gobernu-ekipoak aukeratu dizkigun aurrekontuak egiteko eta justifikatzeko erabili duen hitza. Krisi hitza letra larriz idatzita. Udalak izango duen diru-sarreraren murrizketa krisiari soilik leporatzen zaizkio eta hori ez da horrela. Hirigintza-operazioengatik diru gutxiago jasotzea bai lepora dakiokeela krisiari, baina Aldundiaren Udal Funtsen jaitziera ez.

Gure ustez, egoera horren erantzule ez da krisia bakarrik. Udalgobernuan dauden alderdiak eta oposizioan daudenak batzuk ere arduraren zati handi bat dute. Garbi esateko azken urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika fiskala babestu duen indar politikoa guztiak dute erantzukizun hori. Indar politikoa horiek hemen daude udal txan. Presio fiskala murrizteko bultzatu den politikak ere ekarri du, neurri adierazgarri batean, Gipuzkoako Ogasunak diru gutxiago biltzea eta, ondorioz, Udal Finantziaziorako Funtsak baliabide gutxiago izatea. Politika fiskal erregresibo horren atzen adibidea oraindik orain bizi izan dugu Ondarearen zerga kentzearekin. Foru Aldundiak 56 milioi euro gutxiago bilduko ditu, hain justu, udal Diputazioari itzuli behar dioten diruaren erdia. Behin baino gehiagotan esan dugu: ez dago Ipar Europako moduko politika sozialak egiterik, Afrikako politika fiskalak aplikatuta. Baina Tolosako udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen duten alderdien ardura politikoa ez da horretara bakarrik

mugatzen: iruzur fiskala borrokatzeko neurri eraginkorrak eta gogorrik aplikatzeari ezetz esaten diozue eta iruzur fiskala diru-bilketaren %15a da gutxi gora-behera.

Murrizketa-garian gaude, baina lorpen moduan aurkeztu zaigu pertsonal politikoa liberatuaren soldadak izoztea. Ondo! Alabaina jarraitzen dugu esaten egun udalak duen politikoa liberatuaren kopurua handiegia dela. Ez dugu entenditako nola beste departamentuetan gastua murrizteko ahalegina egin den eta honetan beste aldera begiratu den. Datu bat: 2010ko aurrekontuetan pertsonal politikoa liberatu ordaintzeko aurrekusten den diru-kopurua 2006koan baino %240 handiagoa da.

Udaltzaingoa atalean, oso datu kuriosoarekin topo egin dugu. 2009an isunen bidez 121.000 euro bildu ziren; 2010era 274.000 euro aurrekusten dira 153.000 euro gehiago. Herritarrek ordainduko al dute udalaren diruzuloa? Esan izango zaigu datuak eguneratu egin direla. Horrela izango da eta gu sinesten dugu udalak isunen bidez dirua biltzeko grina bizirik ez duela, eta ondorioz, proposatu egiten dugu herritarren artean sensibilizazio-kampaina bati ekitea udaltzaingoa horrenbeste isun tramitatu behar ez izateko.

Gizarte-zerbitzuen alorrean ez dugu uste nahikoa denik diru-kopuruei eustearrekin edo gainerako sailtan baino diru gutxiago murriztearekin. Gure ustez zerbitzu sozialen eskaria handiagotu egingo da eta eskaera berriak kontuan hartzeko prest egon beharko luke udalak.

Hirigintza departamentua gastu-partidak ia-ia berdindu mantentzea ez dugu ulertzen, zuen kalkuluen arabera lizentzia urbanistikokoak %39 gutxiago izango direnean eta hirigintza departamentuak egin beharko zituzkeen lanak egiteko Tolosa Lotzen sozietate pu-

blokoa sortu berri denean. Gainera, hirigintza-ekipo paralelo bat ordaintzen jarraitzen dugu; 88.000 euro 2010erako. Departamentuaren lan-bolumena izugarri gutxiagotuko da, baina egiturari eutsi egingo zaio. Iaz esan genuen eta berriro esango dugu, bada garaia hirigintza-departamentuko egoera birbideratzeko.

Zer esan herriko argi publikoen inguruan. Iaz Aranzadik eginiko azterketaren emaitzak aplikatzeko eskatu genuen. Ez dira aplikatu eta gainera, 2010erako argiteriako gastua handitu egingo da. Etsenplua behar du udalak izan energia aurrezten eta ez da.

Ez da ulertzekoa Udaletxe honen jarrera lehen sektorearekiko. Babarrunaren edo txuletaren azokaren edo zuhaitz-egunaren modukoak babesten ditu eta, aldi berean Tolomendi emaniko diru-laguntza %31 txikiagotuko da. Itxura denez, nekazaritza-sektorea ez da lehentasuna Tolosako udalarentzat.

Euskara zerbitzuaz zer esango dugu, ba? Lehengo lepotik burua. Iaz esan genuen ez geundela ados ez aurrekontuen egiturarekin ezta filosofiarekin ere. 2010koak berrak dira. Ezin dugu ados egon gure herriaren nortasun-ikurra den euskara sustatzeko zerbitzuak bere aurrekontuaren %44a pertsonala ordaintzeko erabiltzea eta %56a bakarrik bere jarduna betetzeko. Gure usteetan desoreka onartezina da.

Alderdi negatibo gehiago azpimarratzen joan gintezke, baina nahikoa aipatu ditugula uste dugu. Dena den, herritarrak gonbidatzen ditugu udalaren webgunean sartzea eta bere kabuz aurrekontuak aztertzea, aurrean lehen aldiz eta EB-Aralarren eskariz aurrekontuak partiden xehetasunekin publikatu baita: [www.tolosakoudala.net/eu/html/3/1931.shtml](http://www.tolosakoudala.net/eu/html/3/1931.shtml).

**Enrique Torkemada eta Inaki Irazabalbeitia.** Tolosako Ezker Batua-Aralar koalizioaren izenaren.



2009ko abenduaren 29an egin zuten Osoko Bilkuran onartu zituzten aurtengo aurrekontuak. E. EZBZEA

# Igandean izango da Ero Etxe elkarteak urtero antolatzen duen krosa

**Tolosa** » Lasterketak 11:30ean hasiko dira eta azken itzulia, emakumezko benjaminena, 12:35ean abiatuko da.

## ERREDAKZIOA

Tolosan «klasiko» bihurtu den hitzordua izango da igandean honetan, hilak 24ean, Ero Etxe Elkartearen Krosa, hain zuzen ere.

11:30ean hasiko da XXIII. Ero Etxe Elkartearen Krosa eta 800 bat ume espero dituzte. «23 urte hauetan 800 bat ume ateratu dira urtero, horrek esan nahi du urte hauetan 18.000 bat haurrek hartu dutela parte. Kopuru altua da eta

## Aurreko 22 urteetan «18.000 bat haurrek» hartu dute parte elkartearen krosean

belaunaldi desberdinak batu ditu», argitu zuen Isitxo Larrañagak, krosako antolatzaileetako batek, atzo egindako aurkezpenean. Larrañagarekin batera beste arduradunetako batek, Jose Mari Saezek, eta Oscar Renedo Tolosako Udaleko Kirol zinegotziak eskaini zuten prentsaurrekoa.



Saez, Renedo eta Larrañaga izan ziren krosaren nondik norakoak emateko ardura izan zutenak. I. TERRADILLOS

## Iazko ibilbide bera

Iaz krosean ibilbidea aldatu egin behar izan zuten kolektorearen lanengatik, eta aurten ere ibilbide bera egingo dute. «Datorren urtean bueltatuko gara betiko zirkuitura», argitu zuen Larrañagak. Aurtengo berrikuntza bakarra hortaz, nesken ibilbideari dagokio, izan ere hauek bide laburragoa egin beharko dute. «Nesken hiru ibilbideak -infantilak, alebinak eta benjaminak- motzagoak izango dira, horrela eskatu digutelako», gaineratu zuen Jose Mari Saezek.

Saezek, era berean, Trianguloko plazan karpa bat jarriko dutela argitu zuen, «bertan ura, yoghurtak eta oparixtoak banatuko ditugu». Sari banaketa, berriz, Zerkausian

egingo dute. Azken urteetan bezala, domina jaso beharrean parte hartzaile guztiek trofeo txiki bat jasoko dute.

## Aurtengoan nesken hiru ibilbideak laburragoak izango dira elkarteari horrela eskatu diotelako

## Jende askoren lana

Larrañagak Tolosako Udalarari eta «krosa antolatzeko laguntzen duten» guztiei eskerrak eman zizkien.

«Hau guztia antolatzeko 80 eta 90 pertsona artean aritzen gara, Ero Etxe elkarteok eta baita bes-

## » DATUAK

### Mailak

■ **Gizonezko infantilak (1996/97)**. 11:30ean aterako dira eta 2.950 metro egin beharko dituzte (itzuli motz bat eta hiru luze).

■ **Emakumezko infantilak (1996/97)**. 11:45ean aterako dira eta 2.150 metro egin beharko dituzte (2 itzuli motz eta luze bat).

■ **Gizonezko alebinak (1998/99)**. 12:00etan aterako dira eta 1.400 metro egin beharko dituzte (2 itzuli motz).

■ **Emakumezko alebinak (1998/99)**. 12:15ean aterako dira eta 1.400 metro egin beharko dituzte (2 itzuli motz).

■ **Gizonezko benjaminak**

te leku batzuetakoak ere», argitu zuen.

Oskar Renedok bere aldetik, Udal ordezkari moduan, Ero Etxe elkarteak urtero egiten duen lana eskertu nahi izan zuen, «badakigu honelako zerbait antolatzeko lan asko egin behar dela, eta beraz guk ere lan hau eskertzen dugu». «Tolosak zerbait badu, herritarren parte hartzea da», gaineratu zuen.

Renedok, era berean, bi urte barru krosak 25 urte beteko dituela gogoratu zuen eta beraz, «berezia den zerbait» egiteko proposamena luzatu zien elkarteok kideei. «Ari gara zerbait prestatzen, esaterako krosa herritar guztiei zabaltea eta ez soilik gazteenentzat, baina ikusiko dugu», aurreratu zuen Saezek.

(2000/01). 12:25ean aterako dira eta 700 metro egin beharko dituzte (Itzuli motz bat).

■ **Emakumezko benjaminak (2000/01)**. 12:35ean aterako dira 700 metro egin beharko dituzte (Itzuli motz bat).

## Izen-ematea

■ **Eskoletan**. Tolosaldeko eskoletan.

■ **Zerkausian**. Egunean bertan edonork eman dezake izena Zerkausian bertan.

## Informazio gehiago

■ [www.eroetxe.net](http://www.eroetxe.net) helbide elektronikoa.

# Eskualdean ere ospatuko dute biharko San Sebastian eguna

**Gizartea** » Orendainen, Leaburu-Txaraman, Berrobin eta Berastegin ekitaldi ugari izango dira egun berezi honetan.

## ERREDAKZIOA

Kontrakoa dirudien arren, Tolosaldean ere ospatzen da San Sebastian eguna. Behar bada, Donostia-ko eta Azpeitiko ekitaldiek sortzen dute oihartzun handiena San Sebastian egunean baina, modu xumeago batean izanagatik, Orendain, Leaburu-Txarama, Berrobin eta Berastegin ere ospatzen dute biharko egun berezia.

## Musika, afari-merienda...

Herri gehienetan meza izango da nagusi, baina badira ere, Leaburu-Txaraman bezala, herriko dantzarien emanaldia eta afari-merienda izango dutenak.

Orendainen ere, bazkaria izango dute Eltxo elkartearen eta ondoren, musika izango dute arratsaldean alaitzeko.



Leaburu-Txaraman urtero ospatzen dute San Sebastian eguna. LANDER OTERMIN

## » EGITARAUAK

### Berastegi

■ **10:00**. Meza izango da herriko parrokian.

### Berrobi

■ **18:00**. Meza herriko parrokian.

### Leaburu-Txarama

■ **17:30**. Meza ermitan. Ondoren herriko dantzarien saioa kanpoaldean. Gero, Udalaren eskutik afa-

ri-merienda izango da Zazpi Bide elkartearen.

### Orendain

■ **10:45**. Plazan elkartuko dira eta handik San Sebastian ermita aldera joango dira.

■ **11:00**. Meza ermitan, ondoren hamaiketako ostatuan.

■ **14:00**. Bazkaria Eltxo elkartearen eta musika.

# Mujikaren bahiketaren tokian Espainiako lau telefono zeuden

## ERREDAKZIOA

Amezketan bizi izan den Juan Mari Mujika iheslari politikoa atzotik 2008ko abenduaren 11n Espainiako lau polizia bahitu zutela salatu zuen. Urte bete pasatxo beranduago, Baionako Auzitegiak ikerketa abiatu zuen eta egindako ikerketa perizial batek bahitu zuteneko toki berean Espainiako lau telefono zeudela argitu zuen.

Hau ikusita Baionako Auzitegiak telefono horiek identifikatzeko eskatu zion Espainiari, baina honek hori ezin duela egin erantzun dio. Lau telefono horiek aurrez ordaintzen diren txartelekin dabiltzala esan du eta beraz, horiek eskuratzeko ez zegoela zertan identifikatu behar udazkenara arte, orduan aldatu baitzen legea. Baionako Auzitegiak dioenak Mujikak salatutakoak baieztatuko luke.

## Bahiketa

Egun Zuberorain bizi den Mujikak polizia espainiarrek 2008ko abenduan bi orduz bahitu zutela salatu

zuen. Iheslari politikoak esandakoaren arabera, Donapaleura joan zen erosketak egitera eta hiru gizonek, poliziak zirela esanez, haien autora sartzeko esan zioten. Gero ohartu zen Mujika hiru gizon haiek ez zirela Frantziako poliziak, espainiarrak baizik.

## Galderak eta mehatxuak

Mendialdera eraman zuten eta laku baten ondoko etxola batean galderak eta mehatxuak egin zituzten.

Poliziarekin kolaboratzea proposatu zioten, baina Mujikak ez zien berehala erantzun. Lanera joan behar zuela eta berriz eraman zuten hartu zuten tokira. Egun horretan bertan beste hitzordu bat jarri zioten, baina Mujika ez zen agertu.

Ataundarrak alaba, Irati Mujika, preso zeukan orduan Espainian orain ere kartzelan dago iazko azaroaren 24ko polizia sarekadaren atxilotu eta gero- eta hainbat mehatxu egin zituzten.



Egun 0-2 urte bitarteko zazpi haur daude Kalebeheran dagoen behin-behineko haurreskolan. I. GARCIA

Alegian haurreskola martxan dago alokairuzko modulu batean. Egun zazpi haur daude bertan. Udalak eraikin berria egingo du kultur eta kirol etxearen ondoan, irailean erabilgarri izateko asmoz.

## Berria egin bitartean

IMANOL GARCIA

Azaroan jarri zen martxan Alegiako haurreskola. Kalebeherako parkean dago, alokairuko modulu batean, eraikin berria egin bitartean. Egun zazpi haur daude bertan, gela batean. Horieta bi 1-2 urte tartekoak dira eta beste bostak 0-1 urtekoak. Matrikulazio kanpaina ireki berri dute eta hilaren 29a arte egongo da zabalik. Izena ematen duten haurrak martxoan hasiko dira. Aurre-erago, maiatza inguruan, datorren ikasturterako izena emateko aukera izango da.

Rosa Mari Llorente haurreskolako koordinatzaileak azaltzen duenez, urtean hiru epeizatan dira izena emateko. «Urtean zehar haurrak jaiotzen dira eta lau hila-beterekin sartu daitezke haurreskolan. Horregatik ikasturtean zehar izena emateko aukera bat baino gehiago izaten dira». Gela bat izanik eta kontuan hartuta 0-2 urte tartekoak daudela, gehienek hamar haur egon daitezke haurreskolan. Ondorioz, egun hiru leku hutsik daude. Hasieran bi gela izango zirela uste zen eta horregatik bi irakasle kontratatu ditu Haurreskolen Partzuergoak.

Datorren ikasturteari begira, egin nahi den eraikin berria bi gela aurreikusten dira. Horieta bi 0-1 urte bitartekoentzat izango da eta hor gehienek zortzi haur egon daitezke. Beste gela 1-2 urte-



Haurreskolarentzako eraikin berria kultur eta kirol etxearen ondoan egingo dute. I. GARCIA

koentzat izango da eta gehieneko kopurua 13koa da. Ikasturte honetan haurreskolan daudenek lehen-tasuna izango dute hurrengorako.

Haurreskolen ordutegia gurasoen eskaeren arabera zehazten da, baldintza batzuk kontuan hartuta. Horien artean, gehienek 11 ordu irekita egon daitekeela. Alegiako 07:45ean irekitzen da eta 17:00ak arte dago zabalik. Bestalde, haur batek ezin du egon zortzi ordu baino gehiago. Ordu kopuruei dagokionez, bi aukera daude: bost eta zortzi ordukoak, bakoitza

berrekin. Llorentek azaltzen duenez, «Udalak prestutasuna erakutsi du eta zerbait eskatu duguneko kasu egin digute». Modulu batean egoteak duen desabantaila tenperatura dela azaltzen du hezitzaileak. «Batzuetan arazoa izaten da, batez ere azkenaldian egin duen hotzarekin. Moduluaren barruan kalean bezain hotza dago. Goizean etortzen garenean topera jartzen dugu berogailua eta bitartean haurrak berrokiekin uzten ditugu gela berotu arte». Horrelako eraikinak erabil-

tzea ez dela zerbait berezia azaltzen du: «Beste herri batzuetan ere erabiltzen dira modu honetakoak».

### Gurasoak «gustura»

Lourdes Perez gurasoen ordezkariak azaltzen duenez, «gustura» daude: «Ikusten dugu herrian haurreskola izatearena aurrera doala. Ikusten genuen herrian eskola dagoela eta beste herrietatik hona etortzen zirela, baina haurreskolarik ez zegoela». Perezek gaineratzen duenez, «gurasoek es-

zedentzia hartzen zuten edo beste herri batzuetara eramaten zuten haurra herrian haurreskolarik ez zegoelako».

Orain uste du «guraso gehiago animatuko direla» bere haurrak Alegiako haurreskolan matrikulatzen. Egun haurreskola dagoen moduluari dagokionez, «ondo» dagoela dio, «baina lekua txikia dela uste dut». Hotzaren kontuari buruz ere aritu da eta batez ere arazoa astelehenetan izaten dela dio. «Lekua bera ere hotzagoa da», azaltzen du. «Eraikin berria hobeto egongo dira haurrak. Gainera eskola aurrean izango dute eta beste haurrak ikusteko aukera ere izango dute kanpora ateratzen direnean».

### Eraikin berria irailerako

Luzetik dator Alegian haurreskola izateko nahia. Aitor Sarasola alkateak dioenez, herrian dagoen «eskaera bati erantzuna ematea da Udalaren helburua». Aurreko legegaldiaren hasieran, 2003an, ekin zion Udalak gai honi. «Nahi izan genuen Franconin egitea, baina azkenean ez zen posible izan», gaineratu du.

Udalak bere jabegoko eraikinik ez zuen eta eraikitzeko ia lurzoririk ere ez. Franconi Fundazioaren eraikina ikusten zuten Udalak egokia haurreskolarako, baina ez zen Fundaziokoekin adostasun batera iritsi. «Hasi ginen beste leku bat bilatzen, baina ikusi genuen denbora gainera zetoirela eta martxan jarri beharra zegoela», adierazi du alkateak. «Ezin genuen gehiago itxaron eta beste herri batzuetan horrelako moduluak jarri direla ikusi genuen eta hemen ere horrelako bat jartzea erabaki genuen».

Kalebeherako haurreskola behin-behineko erantzuna da. Udalaren asmoa datorren ikasturterako, irailerako, eraikin berria izatea da. Kultur eta kirol etxeari atxikita egongo da, beste eskoletatik eta aisialdi guneetatik gertu. Oraingo aurreproiektuarekin daude, baina ikasturte hasierako eraikina prest egoteko asmoa mantentzen du Udalak. «Bi paretak badaude eta zorua ere bai. Eraikitzeak ez du lan handia eskatuko», azaltzen du alkateak.

Partzuergoak lekuari oniritzia eman dio dagoeneko. «Edozein lekuk ez du balio», azaldu du Sarasolak. «Partzuergoko kudeatzaileak ikusi zuten eta leku egokia zela iritzi zion. Errepidera ateratze gabe eskolaren lekuak zuzena du. Leku aproposena zela ikusi zen». Lurzoru horretan zerbait eraikitzeko aukera zabalik zegoen eta haurreskola egiteko erabiltzea erabaki dute. «Iruditzen zitzaigun beharrezkoena hori zela», zehazten du alkateak. Eraikinak bi solairu izango dituela aurreikusten da. Haurreskolak behetako hartuko luke eta goian balioanitzeko gela bat egingo litzateke. «Partzuergoak berak eskatzen ditu baldintzak eta horren arabera egin behar da», zehazten du Sarasolak. «Bertako teknikoekin harremanetan gaude».

E **Elkarrizketa**

PATXI ZEBERIO » Erremontista



PATXI GONÍ

## «Lan handia eginda, asko disfrutatu nuen finalean»

**Elduain** » Seigarren aldiz binakako txapela jantzi zuen pasa den larunbatean Zeberio II.ak, marka guztiak hautsiz; lanarekin «oso gustura» baina «aurrera begira» dago.

NOELIA LATABURU

Erremonteko binakako final batean seigarren aldiz txapela jantzi du Zeberio II.ak. Tejados Aoiiz Txapelketako finalean lortu zuen hori, pasa den larunbatean. Buruz buruko ere bitan irabazia du, lehena 2006. urtean eta bigarrena 2007an. Hala ere, ez du atsedetik hartuko eta gaur bertan, Hernaniko Galarretan, San Sebastian Bezerako Jaialdian hartuko du parte, Lizasorekin batera, Urriza eta San Miguelen aurka.

**Zorionak. Final biribila.**

Eskerrik asko. Final gogorra izan zen, joaterako bagenekien zaila izango zela, eta maila eman behar genuela partida irabazteko. Azkenean pentsatuta bezala ateratu zen; beraiek ere oso bikote fuertea osatzen zuten.

**Zeintzuk izan ziren garaipenaren gakoak?**

Batetik, bi atzelarien artean sakan izan zen diferentzia, batik bat. Badiolak zortzi tanto sakez sartu zituen eta beste tanto mordoa sakez aurkariak behartu zituelako izan ziren. Halaber, gakoa gutxi oparitzean egon zen, lan handia egin genuen horretan eta lanean ondo aritu ginen. Oso huts egite gutxi egin genituen, oso zentratuta egon ginen eta gure aukerak ondo aprobetxatu genituen.

**Zuk zeuk egindako lanarekin ere gustura geratu zinen?**

Egia esan, oso gustura geratu nintzen nire lanarekin. Partida egokia osatu nuen, ez dago gehiago eskatzerik. Galdutako pilotak oso gutxi izan ziren, eginikoak, aldiz, asko. Erritmo oso bizia jarri nuen hasieratik eta aurkariak asko behartu nituela uste dut. Beldur ere izan nintzen ez ote nuen amaierara arte iraungo baina bukaera arte indartsu heldu nion.

**Partidaren zein unetan ikusi zein nuen txapela zure buruan?**

39. puntura arte ez nuen argi ikusi partida gure alde aterako zenik. 38-34ko markagailuarekin ere gu-

txi geratzen zen baina zerbait oparituz gero buelta har dezake partidak. Partida guztian abantaila txikia izan genuen arren, ez genuen erritmoa jaitsi, beraiek ere irabazteko zeuden. 34-39koarekin bai, orduan bai ikusi nuen garaipena gertu.

**Finalak ustez eskatzen duen urduritasun puntua izan al zenuen?**

Lasaien joan naizen finala izan dela uste dut. Aste osoan oso lasai egon naiz, sentsazio oso-oso onak nituen, berreskuratu dut nire jokoa. Horrela egoteak beti lasaitasun puntua ematen du. Imanolekin hitz egin nuen eta partida txukun bat egitera eta disfrutatzea joan behar genuela esan genuen. Lortu nuen, lan handia eginda baina asko disfrutatu nuen finalean.

**Marka hautsi duzu, gainera: seigarren txapela binakakoan. Ez da ahuntzaren gauerdiko ezutula...**

Hala da. Mutil koskorra zarenean zure ilusioa da erremontean debutatzea. Gero lehen mailako txapelaren bat irabaztea. Bat irabazten duzunean historiara pasatzen zarela eta beti izan nuen horretarako ilusioa. Eta begira! Urte batzuen buruan seigarren txapela lortu du.

Ez nuen sekula pentsatu horretarako gai izango nintzenik baina urte askotako lana eta konstantziarekin lortu dut. Oso gustura nago, 13 finaletatik 6 irabazi ditut eta horrek esan nahi du goi mailan nabilela, niretzat hau dena da.

**Buruz burukoan ere bi txapel lortu dituzu.**

Banakakoak beste interesa izaten du. Buruz buruko txapelketa garrantzitsua izanik, kantxan bakarrik defenditu behar duzu eta gauza asko ondo egin behar dituzu. Zaila da baina ateratzen duzunean poza askoz handiagoa da. Nahiago dut banakakoa, nahiz eta binakakoan ere primerako bikote eta txapelketa tokatu zaizkidan.

**Bikotea aipatzen duzula, zurekin aritzea ohorea izan dela dio Badiolak.**

Disfrutatu dugu, nik berarekin eta berak nirekin. Oso txapelketa osatua egin dugu biok, oso partida serioak jokatu ditugu. Gure aurka aritu direnak nahiko deseroso aritu dira. Hori bion lana izan da, oso ondo moldatu gara elkarrekin.

**«Garaipena Garikoitzi eskaini nahi diot», esan zenuen partida amaieran.**

Bera etorri zitzaidan burura. Denok dakigu zer lesio larria duen; horregatik eskaini nahi izan nion, pena bat delako berarentzat, txapelketarentzat eta erremontearentzat. Inbidia puntua sentituko zuen eta animoak bidaltze aldera ere egin nuen. Ziur partida jarraitzen egongo zela une horretan.

**ETBtik ez zen izango, behintzat... Futbola sartu eta zuzeneko emankizuna eten zuten-eta.**

Hor ikusten da futbolak zer indarra duen. Interes batzuk daude eta argi dago erremontearen audientzia bat izango zela eta futbolarena beste bat izango zela... Pentsatzen dut horregatik moztuko zutela. Pena bat da, ea gauzak ondo egiten hasten diren denen aldetik. Izan ere, hau ez da ona ez kirolarentzat ezta ikuslearentzat ere.

**Garaipen baten ondoren atzera begiratzeko joera dago beti, egindako lanari erreposoa egiteko.**

Bai. Niri egindakoa azkar pasatzen zait, onerako ala txarrerako. Garaipena denean, momentuko poza sentitzen dut baina beti aurrerabegira nago. Beti aurrera begiratzen

duen pertsona naiz; datozen hila-beteetan ere ahalik eta ondoen jarraitzen ahaleginduko naiz, hori da asmoa.

**Jar gaitezen orduan aurrera begira. Zer egutegi duzu datozen hila-beteetarako?**

Orain mementoz ez dut txapelketarik. Udaberri aldera torneoren bat edo beste izango da eta udan helduko dira buruz burukoak. Oraingo, jokatzen ditudan partidetan goi mailan mantentzea da orain nire helburua, nahiz eta ez den erraza izango.

**Ospatu ere ospatuko zenuen garaipena.**

Bai, noski. Final batera heltzean beti ospatu behar dela iruditzen zait, irabazi alagalduta. Larunbatean koadrila eta familia artean 60 lagun inguru bildu ginen. Eta gainera irabazita, denak oso pozik eta gustura.

**Frontoian bertan ere sentituko zenituen euren animoak.**

Zure inguruko jendea da beti zurekin dagoena eta hori benetan eskertzekoa da. Une onetan eta zailetan zurekin daude eta onetan behintzat beraiek ere disfrutatzea ondo dago. Aurkariak ere bazituzten euren jarraitzaileak; ikuskizun ona eman genuelakoan nago eta festa ondo bukatu zen.

**Zure bikotearen lanarekin eta zure lanaren inguruan jardun duzu. Eta aurkariak nola ikusi zenituen?**

Txarra ez zen izan beraien lana. Azkenean pixka bat puskatu zen partida, dozena erdi tantoko alde hartu genuelako. Lizasok berak esan zuen sakean ez zuela asmatu, pixka bat lotuta ikusi nuen. Baina Urriza jokatzeko zegoen eta lan asko egin behar izan genuen, agian nik gehixeago heldu nion, bera lehenago erori zen, baina orokorrean oso partida ona egin zuten. Final ona izan zen. Ordu eta erdi zaila nuen aritu ginen, 600 pilotakada pasatxo izan ziren eta abiadura bizian. Fisikoki esfortzu handia suposatzen zuten. Horrela irabaztean ere oso gustura geratzen zara.

**Ikusleentzat ere ikuskizun handia izan zen, hortaz.**

22-40 irabaztean ere ona izaten da baina garaipena estuagoa denean gusturago hartzen duzu. Uste dut ikuskizun ederra emanda joan gindela etxera, oso pozik geratu ginen.

H **Hilberria**



**PATXI FERNANDEZ DE OLMOS**  
'Patxori'

Metala ofizioz eta heavy metala afizioz.  
Gogoan izango zaitugu.





**BEASAIN**  
2010eko  
urtarrilaren 19a

**LAB-CAF sail sindikala**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo.  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdia

■ **Tolosa.** 2010eko mendi federatu txartela egin daiteke Alpino Uzturre elkarte (Gudari, 5) astelehen eta asteazkenetan 19:30etik 20:30era edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidean.  
■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako informazioa eta izen-ematea otsailak 8ra bitarte: [www.tolosakoudala.org/inauteriak](http://www.tolosakoudala.org/inauteriak).  
■ **Tolosa.** Inauterietako haur dandorradan koska bezala atera nahi dutenek hilaren 23 eta 30eko musika eskolako entseguetara azaldu beharko dute (15:30-16:30).

### Zinema

■ **Tolosa.** *Lets get lost* filma etzi zine-klubean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

### Antzerkia

■ **Villabona.** Maskarada taldearen *Ohean* antzezlanaren ostiralean, hilak 22, Gurea aretoan 22:30ean.

### Musika

■ **Tolosa.** Anje Duhalderen kontzertua ostiralean, hilak 22, Bonborenean 22:30ean.

### Bertsolaritza

■ **Tolosa.** Bertso jaialdia larunbatean, hilak 23, Txolarre Irratiaren 10. urteurrena dela-eta, Leidor aretoan 18:00etan: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelu-mendi eta Jesus Mari Irazu.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea, 43. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Jaso dute bedeinkapena

**Berastegi** » San Anton eguna ospatu zuten santu berari eskainitako baselizan; animalia ugari eraman zituzten.

### ERREDAKZIOA

San Anton eguna izan zen herene-gun eta urterto legez Berastegiko San Anton Ermitan animalia ugari bildu ziren. Baserri eta etxeetako animalia kuttunenak eraman zituzten baselizara, bertan bedeinkapena jasotzeko.

### San Antonen irudi berria

Hurbildu zirenek, hala ere, izan zuten bestelako eragingarriak ere, izan ere, Luis Erasok egindako San Anton irudi berria ikusi ahal izan zuten.

Gogoratu behar da, orain urte bete inguru ermita honetako, Belauntzako eta Berrobiko santuen irudiak lapurtu zituztela.



Jende ugari hurbildu zen Berastegiko San Anton Baselizara euren animaliak bedeinkatzera. SARA GOMEZ

## A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ • N A : \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_ • Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_ • Herria: \_\_\_\_\_

• P.K.: \_\_\_\_\_ • Tel.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_